

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak

José Angel Lema Pueyo
EHUko irakaslea

Aurkezten dugun lana hiru ataletan banatzen da. Lehenean, Erdi Aroko hiru gaisotasun ezaugarritsu hartzen dira aztergai: izurria, legena eta “su sakratua” delakoa, bai beren ezaugarri klinikoak bai beren bilakaera historikoa azalduz. Segidan, bigarren partean, garai horretako baliabide medikoak deskribatzen dira: sendagilearen lanbidearen bilakaera eta definizioa, tratamendu eta prozedurak, bai eta ospitaleen antolamendua ere. Azkenez, eritasunak edo, hobeto esanda, eritasunaren beldurrak sortarazten zituen erreakzio eta ondorio nabari batzuk aipatzen ditugu, hots, legendunen bazterketa-prozesua, azorritzaile edo “flagelatzailen” mugimendua, izurritea eta juduen jazarpenen arteko harremanak (Izurri Beltzaren garaian, batez ere) eta herri-debozio eta sineskeriaren garapena.

The work we expose on the following article is divided into three different parts. In the first part, three characteristic illnesses in the Middle Age are studied: epidemic, leprosy and the so-called “sacred fire”, describing both their clinical characteristics and their historical evolution. Going on, in the second part, medical resources at that time are described: the definition and evolution of the medical occupation, treatments and processes, and the organization of hospitals. Finally, in the last part, we mention some of the reacts and effects originated by illness, or, let’s say, by illness fear: the rejecting process suffered by the leprosy, the punishers’ movement, relations between epidemics and the persecution of Jews (specially during the Black Epidemic) and the development of people’s devotion and superstition.

Gizakia bere sorreratik beretik gaisotasunaren itzalpean bizi izan da. Beraz, gizakiaren historia ez dago ulertzerik, nozitu dituen eritasunak kontutan hartzeke. Aspaldian epidemiak eta gaitzak, beren kausak aurkitzen iharduten zuten sendagileen aztergaia izan ziren. Tokiko historialari edo kronikariek ere aipatzen zituzten epidemiak eta izurriteak, bizi zireneko hiri edo herriko gertakizun nabariak kontatzen zituztenean. Halere, mende honetara arte historialariek ez dute egin horrelako gaiet buruzko azterketa sistematikorik. Adibide adierazgarri bat: 1848. urtea, Izurrite Beltzaren seigarren mendeurrena izan zena, historialariek jaramon handirik egin gabe igaro zen. Baina horrelako egoerak aldatu behar zuten. Denbora igaro ahala, ikerlari asko pentsatzen hasi ziren gaisotasunak eta epidemiak historia ekonomiko, sozial edo kulturalaren faktore iraunkor eta erabakiorrak izan zirela. Beraz, gaisotasunak eta gaisoak historiaren protagonista bihurtu ziren. Joera historiografiko horren aitzindaria Johannes Nohl berlingarra izan zen, Izurri Beltza eta bere ondorio historikoak ikertu zituen. Bere ikerketen emaitza gaur klasikotzat jotzen den liburu bat izango zen, 1924ean argitaratutakoa (ik. lan honen bibliografia). Geroago, demografia historikoaren lanetan ere gaitzak hartu ziren aztergai. Azkar pentsamolde eta jokaera kolektiboen historiaren parte bat bihurtu ziren. Aldi berean, gaisotasun bakoitzak bere kronikaria aurkitu zuen: izurriak (Biraben), legenak (Touati, Beriac), nafarreriak (Darmon, Bercé), sifiliak (Quétel), tuberkulosiak (Guillaumek).

Beraz, argi daude gaiaren garrantzia eta interesa. Zeintzuk dira gure helburuak segidan azaltzen dugun

lanean? Erdi Aroko eritasun guztiak aztertzeari ezinezkoa iritzi diogunez, hiru aukeratu ditugu aztergai, ezaugarritsuenak iruditu zaizkigunak, ondo ikertuak daudelakoan: izurria, legena eta su sakratua delakoa. Bigarren atalean eritasuna eta epidemiaren aurkako borroka deskribatzen dugu, hots, zer baliabidetara jotzen zuten Erdi Aroan eritasunaren errealitatea ulertu eta gainditzeko. Amaitzeko epidemien zenbait ondorio sozial eta kultural azaltzen saiatu gara.

1. Hiru gaisotasun ezaugarritsu: izurria, legena eta su sakratua

1.1. Izurria

Erdi Aroko eritasunez pentsatzen dugunean, izurria da burura etortzen zaigun lehen hitza. Neurri batean, ulergarria da, garai horretan egin zituen hilak gogoan baditugu.

Ezaugarri klinikoak

Gaisotasun kutsagarria, *Yersinia pestis* baziloak ekartzen duena. Izen hori ematen zaio mikrobioari, 1894ean, Hong-Kongen, Yersin mikrobiologo suitzarrak aurkitu zuelako. Adituek diotenez, izurriaren hiru-bazilo mota dira: *Orientalis*, *Medievalis* eta *Antiqua* direlakoak. Lehena Ekialde Urrunean eta Ameriketara aurkitzen da, portuetan batez ere. Bigarrenak Kaspio Itsasoan eta Siberian ditu bere erretserbak. *Medievalis* izena ematen zaio XIV. mendeko izurrite handiak sortarazi omen zituelako. Azken motak, Zaharra delakoak, gaur egun Afrikan dauka egoitza, Laku Handietan eta Ekialdeko Kongon. Aintzinaroko eta Goiz Erdi Aroko izurriteak bertatik hedatu ziren Europara.

Medikuek hiru aldi edo fase bereizten dituzte eritasunaren bilakaeran: inkubazioa, garapena eta septizemia. Egia esan, lehen fasean, sintomak beste edozein gaitzen sintomekin nahas daitezke: sukarra, hotzikarak, goragaleak, egarria, akidura eta itomen-sentsazioa. Bere garapenean hartzen ditu gaitzak bere bi forma ezaugarritsuenak: bubonikoa eta pneumonikoa, hain zuzen. Era bubonikoa sarriena eta ezagunena da: besape, iztai edo lepoan buboiak agertzen dira, gongoilen hantura mingarri eta nabariak direnak. Gogora dezagun Erdi Aroko irudietan izurriak jotakoek arrautza baten tamainako tumoreak erakusten dituztela izterrean edo hankaren goiko partean. Era pneumonikoa arnas aparatuen infekzioa dugu, baziloak kutsaturiko partikulak arnasteagatik sortzen dena. Bere adierezpenak sukarra, eztula, odolezko tuak eta itomen-sentsazioa dira.

Fase septizemikoan, baziloa buboi edo biriketatik zabaltzen da gorputz osoan zehar. Gaitzaren fase hori larriena da eta atzeraezinezko suertatzen denez, gaisoaren heriotzarekin amaitzen da. Oso seinale tipikoa erakusten du eriak: gorputzean azalezko hemorragiak sakabanatzen dira, kolore beltzeko plakak agertuz. Hortik dator gaitzari eman zaion *izurri beltza* edo *heriotza beltza* izena. Zenbaitetan forma septizemikoa aurrikin buboniko edo pneumonikorik gabe azaltzen da, bularretako haurrengan eta gazteengan, batik bat.

Kutsaketa bi eratan eman daiteke. Izurriaren forma bubonikoan prozesua oso konplexua da, animaliangandik gizakiengana joaten baita. Berez izurria narraskien gaisotasuna da. Lurralde populatueta arratoia da kutsaketaren protagonista, bere bi motarekin.

Alde batetik, arratoi grisa edo estoldetakoa (*Rattus norvegicus*); beste aldetik, arratoi beltza edo etxeetakoa. Gainera, izurritea oso garatua egonez gero, saguek ere jasan eta transmititzen dute eritasuna. Baina gizakiaren infekzioa arratoiaren arkakusoaren bitartez (*Xenopsyla cheopis*) gertatzen da. Arkakusoak izurria jasaten duen arratoiari koska egiten dio, odola baziloekin surgatuz. Baziloak intsektuaren barruan ugaltzen dira eta esofago gainean poltsa bat osatzen, probentrikulo delakoa. Poltsak intsektuari elikatzea eragozten dionez gero, arkakuso gosetiak behin eta berriro koska egiten du, baina biktimaren odola irentsi ezin duenez, bota egin behar du. Arkakusoak biktimari odola itzultzerakoan, baziloak ere inokulatzen ditu. Gizakiak koska nozitzen badu, baziloa bere zirkulazio-aparatuan sartzen da eta gongoil linfatikoetan buboiak agertzen. Baziloaren hedapena orokorra izanez gero, septizemia gertatuko da. Izurritea hasitakoan, gizakiaren leptik bizi diren beste parasito batzuek ere kutsadura zabaltzen lagun dezakete: beste zenbait arkakuso motak (*Pulex irritans*) edo zorriek. Kutsaketa, era bubonikoan, baldintza klimatiko berezietan garatzen da: arratoiaren arkakusoak 15-20° bitarteko tenperatura behar du bizi ahal izateko eta %90-95eko hezetasuna. Horrela uler daiteke izurria urtaro beroan eta euriteen ostean agertzea.

Izurriaren era pneumonikoan, kutsaketa gizakien artean egiten da zuzenki, eztul egin edo mintzatzerakoan, ahotik botatako lerre-tantatxoaren bitartez. Baziloa eramaten duten tanta horiek (*Flüggeren* tantak) lau metrotara ere irits daitezke, eztulek egozten dituztenean. Horrela igorritako baziloa sudur, aho eta biriketako mukosetatik sartzen da biktima berriaren gorputzean. Herri heze eta hotzetan, horrelako tantek lu-

zaro irauten dute kutsatuta eta eguratsuan sakabanatuta, infekzio-arriskua handiagotuz.

Tratamendu eraginkorrik izan ezean (eta Erdi Aroan ez zegoen) hilkortasun-ehunekoak altuak dira gaitzak jotakoen artean. Eritasunaren era bubonikoan, kutsatutakoen % 40-90a hil daiteke; era pneumonikoan % 90-100a. Gaitza fase septizemikora helduz gero, ez dago ez salbuespenik ez inolako salbaziorik. Dena dela, eritasuna gainditu eta bizirautea lortzen dutenek nolabaiteko inmunitatea hartzen dute, zenbait urtetan luza daitekeena.

Bilakaera historikoa

Egun jakin badakigu izurriaren erasoak bi aldi handitan izan zirela Erdi Aroan. Zaharrena VI-VIII mendeetan kokatu beharra dago. Bestea XIV. mendearen erdialdean hasi eta XVIII. mendera arte luzatu zen.

Lehen izurrite-zikloak Mediterraneo inguruan zeuden lurralde guztietan izan zuen eragina, oro har. Dauzkagun datuen arabera, izurria 541-544 urteetan hasi eta 767an izan zuen azken agerpena. Bi data horien artean, gaitzak hogeitaz jo zuen biztanlego mediterraniotarra. Izurriteak itsasoz zabaldu ziren: 542an, itsasuntziz bidaiatu zuten soldadu bizantziarrek eritasuna eraman zuten Konstantinoplak Kartagoraino, adibidez. Mendebaldeko Europan, portuak izan ziren epidemia sartzeko ateak, Ekialde Mediterranioko herriekin merkatal harremanak izaten zituztenak, batez ere: Ravenna, Genoa, Marseilla eta abar luze bat. Hala ere, XIV. mendeko izurriteekin alderatuz, Europan epidemiak ez ziren nabarmenki hedatu kostaldeetatik at, oro har. Europako

barneko aldean emandako zabalkuntza eta agerpena mugatuak izan ziren: Po eta Rodano arroetan, batez ere.

Supituki, VIII. mendearen bigarren erdialdean gaitza desagertu zen eta europarrek jarraiko sei mendeetan ez zuten beste izurriterik nozituko. *Heriotza beltzaren* ziklo berria 1347an hasi zen. Ordutik izurriteek behin eta berriro joko zituzten Europako herriak, bi esparru geografiko bereiz daitezkeelarik: Iparmendebaldeko Europa 1347tik 1722raino hogeita hamaika erasoaldi jasan zituena; Hegoekialdeko Europa, non 1842ra arte hogeitaz izurrite izan baitziren. Azken urte horretan izurriaren aroa amaitzen da Europan.

Bere garrantziagatik 1347-1352ko izurritea gogoratzea merezi du, Europako biztanlegoaren herena inguru hil baitzuen. Beraz, ez da gehiegizkoa esatea gure kontinentean izandako katastrofe larrienetakoa izan zela. Bere bortitzak denak harritu eta ikaratu zituen. Guy de Chauliacek, Klemente VII.a aita santuaren sendagileak, idatzi zuenez, izurriteak «ez dauka parekorik. Beste epidemiak lurralde batean soilik izan ziren, hau, ordea, mundu osoan; besteentzat bazegoen nolabaiteko erremediorik, honentzat ez». Giovanni Boccaccio idazle italiar famatuak, *Dekameron* izeneko lanean, izurri beltza aipatu eta deskribatzen digu, era bubonikoaren ezaugarriak argi azalduz:

Ekialdean sudurretik odola isurtzea heriotzaren seinale nahastezina zen; hemen (Italian), aldiz, gaisoaldia hasteko emakumezkoek zein gizonei itzai eta besapeetan hantura batzuk, sagarrak edo arrautzak bezain handiak, ateratzen zitzaizkien. Jende xeheak buboiak deitzen ziren. Azkar hantura hilgarri horiek gorputz osoan zabaltzen ziren.

Gero gaitzaren sintomak orban beltz edo ubel bihurtzen ziren, beso, izter eta gorputzaren beste parteetan agertzen zirenak... Horrela hasierako buboia hurrengo heriotzaren seinale seguru bihurtzen zen...

Epidemiaren bilakaera kronologikoa ezaguna da. Dena hasi zen mongoliarrek, Krimean, Kaffako kolonia genoarra setiatu zutenean. Setiatzaileak izurriak jota zeudenez gero, kutsadura hiri barrura hedatu zen. Segidan, Kaffatik ihes egindako nabigatzaile genoarrek eraman zuten Anatoliako portu-hiritara, baita Sizilia, Konstantinopla, Korsika, Sardinia eta Marseillara ere. 1347ko amaieran izurritea Florentzian agertu zen, eta hurrengo urtean Mediterraniako kostaldetik barneko lurretan sartu: Italian, Frantzia eta Aragoako Koroako lurraldeetan. 1348ko erdialdean epidemia atlantiar itsasertzera iritsi zen, Bordelera, hain zuzen. Aste batzuen barru, Ingalaterrako portuetan aurkituko zen, baita Normandiako eta Irlandakoetan ere. Urte bereko amaieran, aipatu portuetako inguruetan zabaldu zen eta aldi berean, Ipar Itsasoko kostetara heldu. Izan ere, egun horietan, lehen biktimak egin zituen Londresen, nahiz eta ez jakin epidemiak itsasoz ala lehorrez bidaiatu zuenentz hiri inglesera. 1349an Ipar Itsasoko portuak inbadituko zituen: Dinamarka, Norvegia eta Frisiakoak, hain zuzen. Kopenhagendik izurria Eskania, Jutlandia eta Ipar Alemania osora igaro zen. Lübecken 1350eko ekainean utzi zuen bere heriotz-arrastroa eta udan zehar Baltiko herriak jo. Ondoren eta 1352ra arte, heriotza beltza Ipar Polonia, Lituania, Kurlandia eta Errusiara abiatuko zen.

Oro har, gaitzak herri eta lurrik populatuenak jo zituen, merkatal harreman sarriak eta komunikaziorik erraze-

nak zituztenak. Halere, ez zuen ia indarririk agertu, biztanle-dentsitate eskasa zeneko lurretan (oihan, mendi, basamortuetan), non zirkulazioa urria baitzen: Eskandinavia barneko eskualdeetan (portu eta landutako lurretatik at), Ekialdeko Errusia eta Ukrainian edo Uraleko basoetan. Balkanetan ere biktima-kopurua ez zen oso handia izan. Beste salbuespen batzuk ere izan ziren: Hego Polonia, Herbehere eta Flandesko herrialde asko, Nuremberg hiria eta Ekialdeko Frankonia. Irlak ere libre suertatu ziren: Islandiak 1402an nozitu zuen izurria lehen aldiz eta Kanarietara gaztelarrek eraman zuten XVI. mendearen hasieran.

Izurritearen hedapenak arazo historiografikoa dakar berarekin, hots, zer erlazio dagoen gosetea eta epidemiaren artean. Askoren ustez, goseak biztanlegoaren erresistenzia ahultzen du gaisotasunaren aurrean. Beraz, baliteke Berant Erdi Aroan gertatutako goseteek izurriaren hedapenean eragin handia izatea. Zehazkiago, bada-kigu XIV. mendearen lehen erdialdean gose-urteak ugariak izan zirela Europan, 1317 eta 1347an batez ere. Beraz, badirudi goseteok izurriaren ekintza prestatu zutela.

Halere, iritizi hori ikusita, badago zenbait kritika egiterik. Herri batzuetan, izurritea uzta ugariak izan ziren urtean hasi zen. Horrela gertatu zen Irlandan, 1394an, adibidez. Beste kasu askotan, izurria ahuldu eta desagertu zen, gosetea larriagotu artean. Horregatik, zenbait historialariren aburuz, gosetea eta izurritearen arteko erlazioa egon badago, baina ez da gosetea, askok uste bezala, izurritea sortu eta aregotzen duen faktorea, baizik eta izurriteak ekartzen du gosetea. Orduan, izurriaren eraginak bi modutan joka dezake. Alde batetik, uztaroan lan-

-eskua gutxiagotuz. Ondorioz, uztak (edo uzten parte handia) ez dira biltzen, hornidura-krisia sortzen delarik. Beste aldetik, izurriari aurka egin nahian, isolamendua eta zirkulazioaren debekazioa ezartzen zituzten neurrien bitartez, lurralde askotako ekonomia desantolatuz.

1.2. Legena

Legena: horra hor, izurriarekin batera, Erdi Aroko gaitzik ezaugarritsuenak. Are gehiago, zenbait leku eta momentutan, hots, XII. mendeko Frantzia "legendun" eta "gaiso" (*infirmus*) hitzak ia sinonimo edo baliokide bihurtu ziren. Okzitanian berdin gertatu zen *malaude* (eria) eta legendun hitzekin. François Beriac historialariaren aburuz, garai horretan legena dugu *la maladie par excellence*.

Ezaugarri klinikoak

Legena eritasun kutsagarria da. Sortzen duen baziloa Gustav Armauer Hansen sendagileak aurkitu zuen 1873an: *mycobacterium leprae*, tuberkulosia ekartzen duen Koch baziloaren antzekoa. Gaitzaren larritasun-maila *anergia* kontzeptuari lotua dago. Definizioen bat behar izanez gero, *anergia* gizabanakoak baziloaren aurrean duen berezko erresistentzia dela esango genuke. Egun, anergiarik dagoenentz jakiteko Mitsudaren analisisa jotzen dute adituek. Prozedura horren arabera, Hansen baziloak txertatzen zaizkio pazienteari. Txertaketaren puntuan erreakzio alergikoa ageriz gero, argi dago pazienteak nolabaiteko babesa edo inmunitate naturala duela baziloaren erasoei aurka egiteko; ageri ezean, inolako inmunitaterik ez dela pentsatu beharra dago.

Bi legen-mota ezagutzen dira: tuberkuloidea eta lepromatosa, azken hori larriagoa. Legenaren forma tuberkuloidea oso erritmo geldoan garatzen da. Egungo tratamenduek emaitza ona izaten dute gaisoarengan, bene-teako sendaketa osoa lortzeko moduan. Zainketa eraginkorrik gabe (Erdi Aroan gertatu ohi zen eran) mutilazioak (esku eta oinetako hatzetan) eta paralisiak (besoetan, beheko gorputz-adarretan, begietan) nozi ditzake pazienteak, bai eta hezurren lesioak ere. Legen-mota horren sintoma edo agerpen tipikoa oso garbi ikus daiteke azalean: pigmentazioa galdu duten orbanak eta sentsibilitaterik gabeko plakak.

Gaisotasunaren forma lepromatosa bilakaera azkarragoa erakusten du. Kasu horretan, eriaaren egoera nabarmenki endekatzen da, hilak igaro ahala. Are gehiago, lesioek heriotza ekar dezakete urte gutxitan. Aurpegiaren desitxuraketa eta sudurraren deformazioak itxura berezia ematen diete eriei, *facies leonina* (lehoi-aurpegia) delakoa. Era lepromatosa hori, tuberkuloidea baino larriagoa bada ere, zorionez ez da hain sarria. Goian aipatutako anergia edo inmunitaterik ez dutenak jotzen ditu, batik bat.

Interesgarria deritzogu kutsaduraren era ikusteari. *Mycobacterium leprae* delakoaren baziloak lerdean eta sudur-mukietan bizi dira kopuru handietan. Lerdean, ahotik botatakoan, egun batzuetan iraun dezakete bizirik. Egoera horretan, giza-gorputzean sartzeko azaleko zauri irekiak dira biderik onena baziloarentzat. Kutsaduraren hedapenerako beste bideak esnea eta giza-hazia ditugu. Gaiso batekin izandako harreman luzeak kutsaduraren arriskua handi dezake. Modu berean, arriskuak badauka zer ikusirik etxeko kondizio

higienikoekin. Adibidez, etxeko seni-deek plater zikin berberak erabiltzeak kutsaketa errazten du. Zer esan ez, elikadura-urritasunak eta parasitoek ere arriskua areagotzen dute.

Bilakaera historikoa

Aintzinatean, Ekialde Hurbiletik Europara igaro omen zen eritasuna. Plinio Zaharraren arabera, Egiptotik Italiara zetozen Ponpeioren legioek ekarri zuten gaitza K. a. 61. urtean. Halere, legena ez zen Europan oso sarri agertu hurrengo mendeetan zehar. Izan ere, agiri idatziek eta aurki-kuntza arkeologikoen, hots, kontserbaturiko eskeletoek, adierazten dute gaitz endemiko hori VI. mendean hasi zela kezkarria izaten. Galian, 549. urtean izan zen legendunak aipatzen zituen lehen kontzilioa eta lehen erret aginduak hurrengo mendearen erdialdean eman ziren. Agi denez, ordutik XIII. mendearen erdialderaino hedatuz joan zen. Fenomeno horren seinale eta sintoma legendundegien ugalketa izan zen. Eritasunak indar handiz jo zuen Europako zenbait eskualde. Artoisen (Frantzia) gertatutakoa aipagarria da: bertan, XIII. mendearen bukaeran endemia-tasak ia 0/00 3a izan ziren, egun Hegoamerikan edo Hegoekialdeko Asian aurki daitezkeen bezalakoak. Berant Erdi Aroan, XV. mendean, batez ere, legenak atzerakada egiten du eta legendundegiak hustu, itxi eta desagertzen dira. Denboraren poderioz, europarrek gaisotasun esotiko eta tropikalizat joko dute. Halere, salbuespenak badira, jakina: Eskandinavian legena endemia iraunkorragoa izango da Aro Berrian.

Baina nola ulertu Berant Erdi Aroko legenaren atzerakada? Bi hipotesi proposatu dira. Hemen azaldu besterik ez dugu egingo. Lehen hipotesiaren

arabera, zergatia XIV. mendeko populazioaren beheraldian bilatu behar da. Izurri eta gosetearen ondorioz gutxiagotu zen Europako biztanlegoa. Biztanle guxtiago izanda, bizirauleak hobeto elikaturik bide zeuden. Horrela gaisotasun kutsagarrien aurkako babesa handitu zen nabarmenki. Hala ere, azalpen honek arazoak eta kontraesanak sortzen ditu. Horra hor arazorik larriena: legenaren atzerakada 1300-1350 urteetan hasi zen eta urte horietan Europa superpopulatua zegoen.

Beste azalpen edo hipotesia, Mirko Grmekek proposatu zuena, mikrobiologian oinarritzen da. Tuberkulosia sortzen duen Kochen baziloa eta legenarena antzekoak dira, "familia" berekoak. Badirudi, antzekotasun hori zela eta, lehenak bigarrenaren "konkurrente" edo aurkako gisa jokatu zuela. Horrela, gaitz berriak zaharraren lekua hartu zuen, nonbait, eta tuberkulosia legena egotziz eta ordeztuz joan bide zen. Baina nola frogatu azalpena? Hori, nahiko lan!

1.3. San Antonioren sua

Horixe dugu Erdi Aroko eritasun tipikoenetako bat, izen ugari izan zuena : *su sakratua*, *San Martzeloren sua*, *infernuko sua*, *erretakoen gaitza* eta hedatuena, *San Antonioren sua*. Tes-tuinguru horretan, *su* hitzak biktimek jasaten zituzten min anker eta biziak adierazten dizkigu, erredurak sortutako oinazeekin nolabaiteko konparaketa eginez.

Zein zen eritasunaren sorrera? Beste kasu askotan bezala, badakigu parasito bat dela erruduna: zekalean edo, hobeto esanda, zekalearen lepotik bizi den onddo bat: ainoa (frantsesez *ergot*, gaztelerez, *tizón*). Zeka-

le-ainoak zereal hori parasitatzen du, urte euritsueta batez ere, bihiaren itxura hartuz. Beraz, uzta jasotzera-koan, oso zaila gertatzen da benetako bihia eta parasittoa bereizten. Ondorioak argi daude: ogia prestatzeko unean, bihiarekin nahastuta onddoa ere erabiltzen da. Parasitoak alkaloide toxikoak ekoizten dituzenez gero, horrela egindako ogia pozoindurik suertatuko da.

Baina, zeintzuk dira gaitzaren ondorio eta sintomak? Printzipioz, San Antonioren sua bi eratan ager daiteke: era konbultsiboan eta era gangrenatsuan. Ikus ditzagun banan-bana. Lehen eran, kontrakzioak giharre guztietan hedatzen dira. Eriak barneko bero kiskalgarria sentitzen du eta hotz jasanezina bere tegumentuetan. Aldi berean, beste sintomak azaltzen dira: dardara epileptikoak, erotasun-seinaleak eta azaleko erupzio poliformikoak. Bigarren era, gangrenatsua, larriagoa da: gaitzak oin eta eskuen gangrenak sortarazten ditu, bizirau-leengan zauri sendaezinak utziz. Bigarren era horren biktimen artean, besamotzak, errenak eta elbarriak izugarri ugariak ziren.

1089ko kronikari batek aipatu sintomak deskribatzen dizkigu. Berak ikusi zuenez, «su sakratuak jotakoei menbrua belzten zitzaizkien, ikatza bailiren. Haietako batzuk hiltzen ziren, beste batzuek, nahiz eta bizirik iraun, gangrenaturiko oin eta eskuak gorputzetik eteten ikusten zituzten; halere beste askok, menbruen kontrakzio desitxuragarriak nozitzen zituzten.» XVI. mendearen amaieran ere aipatzen dira eritasunaren biktimek botatzen zituzten «garrasi eta oihu hunkigarriak, zortzi edo hamar etxetako distantzian entzuten zirenak».

Lehen aipamen idatziez fidatzen bagara, badirudi eritasuna X. mendearen erdialdean agertu zela. Egoera larritzekoa zen. Izan ere, XI. eta XII. mendeetan zehar gaitzaren erasoaldiek behin eta berriro jo zituzten europarrak. Testuinguru horretan, biktima-kopurua oso altua izan bide zen Lehen Gurutzadaren koiunturan (1095-1099). Berant Erdi Aroan, beste aldi kritiko bat Ehun Urteko Gerrak (1337-1453) ekarri zuen. Argibide dokumentalek azaltzen dutenez, gaisotasuna perturbazioekin batera agertzen zen. Beste era batean esanda, gabezia, goseteak, klima-aldaketak (euriteak, udaberri hezeegiak) gertatu zireneko urteetan egiten zituen epidemiak biktima gehien.

Gaitzari aurka egiteko baliabide eraginkorrik ez zegoen. Ikerkuntza medikoa *su sakratuaren* sorrera XVIII. mendearen bukaera arte ez da argitzen hasiko. Joan den mendean, eritasunaren ezagutza zientifikoak aurrerakada egin ahala, erasoaldiak gutxiagotuz eta desagertuz joango dira. Erabat? 1951an, aberats eta garatutzat jotzen dugun estatu batean, Frantzia, izan zen oraindik erasoaldi bat, Pont-Saint-Esprit herrian (Gard departamenduan).

Gaitzaren garrantzi historikoa ulertuko badugu, Erdi Aroan zekalea eta zekaleaz ekoiztutako ogia elikaduraren oinarria zirela gogoratu beharra dago. Zereal hori lur pobreetako landarea da, lehorteak ongi pairatzen dituen eta klima hotzetara moldatzeko gai dena. Horregatik, oso zabaldua zegoen Mendebaldeko Europan. Nekazariak zein noble feudalek jaten zuten zekalezko ogia. Ondorioz, Erdi Aroko mendeetan gaitzak bai aberatsak bai pobreak jotzen zituen ezberdintasun gabe. Denbora igaro ahala, goi-mailako

talde sozialen elikatzeko moduak aldatu eta aberastu artean, nekazalgoaren-tzat, ordea, zekalezko ogiak elikaduraren oinarria izaten jarraituko du XIX. menderaino, San Antonioren sua gizarte-talde pobreen gaisotasun bihurtzen delarik.

2. Baliabideak eta erantzunak gaitzaren aurkako borrokan

Medikuaren lanbideak, gaur ulertzen dugun bezala, Erdi Aroan ditu sus-traiak. Ikus dezagun nola joan zen eratu-tuz, zer prozedura terapeutiko erabil-tzen zen, nola azaltzen zuten garai horretako medikuek eritasunaren sorrera, nola zeuden antolaturik ospitaleak. Medikuntza ofizialaren aurrean, herri-medikuntzaren mundua agertzen zaigu, agintarien kontrolpetik at. Hala ere, geroago ikusiko dugun bezala, ofizialtasun medikoaren mugak ez ziren beti oso argiak.

2.1. Medikuen lanbidea

Ezagutzaren beste arlo askotan bezala, Erdi Aroko medikuntzak Aintzinatean ditu bere eredu teorikoak Mendebaldeko Europan: Hipokrates eta Galenoren lanetan, hain zuzen. Baina heredentzia klasikoaren asimilazioa eta ulerpenean, mediku arabiarren bitartekotasunari esker lortu zirenak, ez ziren berdinak izan aldi historiko horretako mende guztietan. Goiz Erdi Aroan (VI.-X. mendeetan), jakintza klasikoaren geldikin batzuk besterik ez ditugu aurkitzen elizgizon eta monjeen eskuetan, batik bat. Sendagile laikoak, kristauak zein juduak, gutxiengo eta salbuespena ziren. Orduan, lan teorikorik erabiliena Isidoro Sevillakoaren *Etimologiak* ziren, nahiz eta oso eduki urria eta mugatua izan, balio handirik gabekoa: eritasun bat aipatzerakoan,

gaitzaren izena eta ia alegiazkoa zen etimologia bat besterik ez zuen azaltzen.

Medikuntza klasikoaren asimilazioa eta berreskurapena areagotu egin ziren XI.-XIII. mendeetan, arabiarren bitartekotasunari esker. Hego Italian, Salernon, lehen sendagile-talde laikoa eratu zen. Bertan, arabiera eta latina menderatzen zituen Konstantino Afrikarra gailendu zen, Galeno eta mediku arabiarren hainbat lan latinera itzuli baitzituen. Bitartean, Toledon, itzulpen-lan sistematikoari ekin zioten. Hiri horretan bi lan talde nabarmendu ziren XII. mendean: mendearen lehen erdialdean, Joan Avendahut juduak eta Domingo Gontzalez klerigoak osatutakoa, eta bigarren erdialdean, Cremonako Gerardok zuzentzen zuena. Azken talde horrek Galenoren tratatuak, Avizenaren kanona, elgorri eta nafarrieriari buruzko Rhazesen liburua, Abulkasisen zirugiari buruzko obra eta abar luze bat itzuli zituen latinera. XIII. mendean ukaezina da Montpellierko unibertsitatearen garrantzia, non Arnau de Vilanova maisu nabariak, obra arabiarrek itzultzeaz gain, medikuntza arazo teoriko eta praktikoetan ihardun baitzuen.

Aldi berean, XII. mendetik aurrera agintariek medikuaren lanbidea gero eta gehiago arautu zuten. Sizilian, 1140an Roger II.a erregeak Europako lehen araudia ezarri zuen. Neurri horien ondorioz, erresumako sendagilegaiek azterketa ofiziala gaudituz beharko zuten lanbidean iharduteko. Geroago, Federiko II.ak, enperadore germaniarrek eta Siziliako erregeak, 1240an promulgatu zituen ordenantzetan sendagile titulazioa lortzeko bete beharrek baldintzak jakinarazi zituen: sendagilegaiek zortzi urte eman behar zuten ikasten, azken bostak Salernoko esko-

lan derrigorrez. Prestaketa horri guztiari sendagile batekin praktika-urtebete gehitzen zitzaion. Siziliako ereduari jarraituz, medikuntzaren kontrola hedatuz joan zen Europa osoan zehar eta bere irakaskuntza azkar sartuko zen unibertsitateetan.

Berant Erdi Aroan, Italiako eskola medikoak nagusitu ziren: Bolonia, Paduako unibertsitateak, hain zuzen, non tradizio arabiar eta grekoak iraun baitzuen. Hala eta guztiz ere, bertan lan metodo berriak asmatu eta praktikan jarri ziren, berrikuntzarako bideak irekiz: giza-gorpuen disezioa edo kasu konkretuen historia klinikoak (Tadeo Alderotti, Gentile da Foligno). Gaur ez bezala, zirujia ez zen sartzen unibertsitateetan ematen zuten irakaskuntzan eta prestaketan. Italiako eskoletan soilik hasi ziren onartzen irakaskuntza mediko ofizialetan.

Ikusi dugunez, mendeak igaro ahal, botereak eta erakundeek gero eta kontrolatuago daude Erdi Aroko medikuak. Batzuk errege, printze, noble, eliz dignatarioen zerbitzuan aritzen dira beren bezero eta pazienteen jauregi eta egoitzetan. Badago gaisoen bizilekuetara joaten den sendagilea ere, gaurko etxerako medikuaren aintzindaria. Beste batzuek, monarkia, noblezia, klero edo burges aberatsek hirietan fundaturiko ospitaleetan iharduten dute. Nola azaltzen zuten eritasuna? Nola jokaten zuten aurka egiteko?

2.2. Azalpenak

Egun, epidemia eta infekzioari buruzko ikuspegia mikrobiologiari lotuta dago. Baina, zer uste zuten orain zortziehun edo zazpiehun urte? Erantzunaren bila, garai horretako azalpenak aztertzen baditugu, gaur ezinago harrigarri suertatzen zaizkigun ideiak

aurkituko ditugu. Izan ere, parasito mikroskopikoek eritasunak eta epidemiak ekar ditzaketelako ideia ez da Erdi Arokoa. Bere lehen aitzindaria Frascator sendagilea izan zen, 1546an argitaraturiko lan batean, «kutsadura ikusi ezin ditugun partikulek sortzen dutela» iradoki zuena. Atanase Kircher jesuita alemaniarra, Erroman 1656ko izurrite bat ikusita, oso animalia txikiak, guretzat ikustezinak, zirela epidemiaren kausa susmatu zuen. *Contagium vivum* izena eman zioten hipotesi horrek bai jarraitzaileak (Diemerbrock mediku holandarra edo Paolini italiarra) bai aurkako amorratuak izan zituen. Geroago, XVIII. mendean teoria berriak gero eta aldeko gehiago lortuko zituen, Linneo naturalista beren artean.

Baina itzul gaitezen Erdi Arora. Garai horretako eritasunaren azalpenak *humoreen teorian* zuen oinarria. Aintzinatean asmatu zen: Hipokratesen *Corpus*-ean ageritakoan, Galenok garatu eta sistematizatu zuen; geroago medikuntza arabiarra onartuta, aberastua eta hobetua izan zen. Baina, jarraitu aurretik, zer dira aipatu humoreak? Erantzuna emateko, azaldu beharra dago nola ulertzen zuten errealitate fisikoa Erdi Aroan. Aintzinateatik datorren ikuspegi horren arabera, errealitatea nahasketa edo konbinazio batetik sortzen da. Hona hemen, konbinazioaren osagarriak: alde batetik, materia; beste aldetik, lau kalitate, materiarekin elkartzen direnak: beroa, hotza, hezea eta lehorra. Nahasketaren ondorioz, munduaren lau elementuak agertzen dira: airea, ura, lurra eta sua.

Errealitate fisikoa elementu horiei gure gorputzaren lau humoreak edo bestela esanda, gure organismoaren osagarriak, dagozkie: odola, pituita, bilisa eta atrabilisa edo malenkonia.

Odola, airea bezalakoa izango litzateke: beroa eta hezea; pituita, hezea eta hotza, ura bezalakoa; bilisa, beroa eta lehorra, suaren moduan; atrabilisa edo malenkonia, hotza eta lehorra, lurraren eran. Azken osagarri hori, atrabilisa, guztiz alegiazkoa da, jakina. Osasuna humoreen arteko orekatik dator eta giza tenperamentua era batekoa edo bestelakoa izango da, humore nagusiaren arabera. Egun harrigarri eta ia ulertezina suertatzen zaigun logika horri jarraituz, erraza da eritasuna nondik datorren jakitea: *diskrasiatik* edo humoren arteko oreka ezetik. Beraz medikuak, tratamendu egokia prestatu ahal izateko, desoreka horren izaera eta larritasuna aurkitu eta aztertu beharko ditu: zein den desoreka sortzen duen humorea, gehiegizko neurrian agertzeagatik edo perturbatuta egoteagatik.

Diskrasiaren zergatiak zeintzuk ziren argitzeko asmotan, iritzi ugari aurkeztu ziren. Hau ez da ez unea ez lekua denak azaltzeko. Zabalduenetako batzuk aipatu besterik ez dugu egingo. Gaitzaren sorrera ernalketa unetik etor zitekeen (*ab utero*) edo jaiotzaren ondokoa izan (*post uterum*). Lehen kasuari dagokionez, Konstantino Afrikarraren iritzia aipatzea merezi du, bere *Liber pantegni*-an jakinarazi zuena. Bere ustez, gaitzen batek kutsatutako gurasoen hazi ustelduek diskrasia, hau da, humore arteko desoreka ekartzen diote haurrari. Erraz asma daitekeenez, jaiotzaren ondoko kausak askoz ugariagoak dira. Mendeak igaro ahala, Erdi Aroko sendagileak zerrenda luzatuz joan ziren. Ikus ditzagun adibide batzuk.

Airea: Humoreen teoriaren arabera, odolak aireztatua egon behar du. Hala ere, aireztapen hori gehiegizkoa izanez gero, odola perturbatzen da,

izurria agerraraziz. Beraz, buboiak, azaleko orbanak edo tu gorriskak, kalteetako humorearen agerpenak besterik ez dira. Izurriaren kasuan, humore hori odola da eta aipatu agerpenak gorputza egozten saiatzen delako seinale. Gainera, aireak gaitzak sor ditzake, usteldua egoteagatik. Izan ere, bero edo euriaren eragina dela eta, airea alda daiteke, kaltegarri bihurtuz. Modu berean, planeten konjuntzio eta mugimenduek airearen izaera aldaraz dezakete eta horrela epidemiaren bat sortu ahal da. Adibidez, Guy Chauliacen aburuz, Saturno, Jupiter eta Marteren mugimenduen konbinazioak Izurri Beltza agerrarazi zuen 1345eko martxoaren 24ean. Hildo beretik jarraituz, eklipseek, kometek, gas pozointsuak aterarazten dituzten lurrikarek eta ekaitzek airearen garbitasuna perturbatu eta bere ustelketa ekartzen zutelako ideia oso zabalduta zegoen.

Gaisoekiko harremanak: sarri baldin badira, erien gorputzetako emanazio kaltegarriak arnas daitezke, gaitza kutsatuz.

Dieta ezegokiak: asko komentaturik zeuden zenbait jaki gehiegizko kantitateetan kontsumitzeak eritasunak sortzen zituela. Legena elikagai "malenkoniatsuak" jatetik zetorrela pentsatzen zuten zenbait medikuk. Horrelako janarien oso zerrenda zelebrea egin ziren: lehoi edo asto haragia, piperautza, baratxuriak edo txerriki ustela. Bernard de Gourdon sendagileak dilistak jateko ohitura sartzen zuen legeneraren kausen artean.

Atal hau amaitu aurretik, legenen kasuari soilik badagokio ere, Bernard de Gourdonen ondoko testua azaltzeari komenigarria deritzogu, bere garaiko pentsamendu medikoa ondo laburbiltzen duelakoan:

Legena “ab utero” edo “post uterum” hartzen da. “Ab utero” baldin bada, horrela gertatzen da, ernalketa menstruazioan izan delako, edo gurasoak legendunak direlako, edo legendun bat emakume haurdunarekin oheratu delako, jaiotako haurra legendun suertatzen delarik. Ernalketan izandako gorabehera horietatik sortzen da legenarra. Jaiotzaren ostean baldin bada, horra hor arrazioak: aire kaltegarria, ustela edo izurritsua delako, elikagai malenkoniatsuak, hau da, dilistik edo bestelako barazkiak, edo haragi malenkoniatsuak, hots, erbiak eta lauoineko animaliak (astoak eta horrelakoak) usu jaten direlako; zenbait lurretan pizti basati horiek guztiak kontsumitzen omen dituzte. Legendunekiko harreman sarriegietatik ere etortzen da eri hau, baita emakume legendunarekiko koiotik ere; gizon legendun batekin oheratu berria den emakume batekin oheratzen dena legendun bihurtzen da.

2.3. Tratamendu eta prozedurak

Sendagileak gainditu behar zuen lehen arazoa diagnosis zen. Horretarako, azalpen teorikoek ez zuten balio handirik, gaisoaren analisi konkretua egin ezean. Sendagilea ikusmen eta ukimenaren bitartez gaitzaren seinaleak eta azalpenak bilatzen saiatzen zen: azalaren gaitzak eta tumefakzioak, alegia. Erdi Aroko medikuek kontutan hartzen zituzten beste bi seinale edo agerpen hauexek ziren: pazientearen pulsuaren erritmoa eta bere txisaren kolorea eta bestelako ezaugarriak. Gaisoaren gorputzaren barrualdea ikerketako beste metodo fidagarriarik ez izanda, medikuak diagnosis bere haurnasketaz osatu behar zuen.

XIV. mendetik aurrera, praktika medikoa bideratu eta diagnostikoa erraztu nahian, tratatu bereziak idatzi ziren eredu gisa balio izan zezaten. Obra horiek bi motatakoak ziren. Batzuek

conseils edo “aholkuak” izena zuten: kasu patologiko konkretuen deskripzioak ziren, kontsulta medikoetarako ereduak proposatzen zituztenak. Beste mota “erregimenek” osatzen zuten. Azken horiek prebentziorako pentsatutako lanak ziren, epidemiak alde aurretik saihesteko baliabideak proposatzen zituztenak. Harrera ona izan zuten XIV. mendeko izurrite handien ondorioz.

Diagnosis egindakoan, sendaketari ekiteko orduan, bazeuden tradizioak inposaturiko prozedurak eta teknikak. Sendaketan, medikuez aparte, bestelako profesionariak aritzen ziren, sendagile ofizialen kategoria ez zutenak. Bizargileek, bere eguneroko zirugiarekin, haginak ateratzeaz gain, abszezuak sendatzen zituzten, baita istripu edo borroketa izandako zauriak ere (larriegiak ez zirenean, jakina). Zirujauak hezur-hausturak konpondu eta zenbait ebakuntza egiten zuten: bisturi eta kauteriaz izurriaren buboiak irekitzen zituzten, gangrenaturiko beso edo hankak mozten edo giltzurrunetako harriak kentzen. Metodo kirurgikoak enpirikoak ziren eta maiz arriskutsuak, haur eta adolezenteengan erabiltzen zirenean, batik bat.

Oso zabaldua zegoen odol usketa, beso eta oinetan egiten zena. Ikusi dugunez, bere oinarri teorikoa humoreen teorian datza: odola gorputza osatzen duten lau humoreetakoa da. Kalteturik edo gehigizko kantitateetan badago, odola aterarazi behar da organismoaren oreka berreskuratzeko. Enemak ere oso praktika arrunta ziren.

Erdi Aroan, botiken erabilerak oztopo bat gainditu behar zuen: ospitaleetan lan egiten zuten sendagile askok nahiago zuten eri bakoitzarentzat pentsatutako menu eta dieta berezietan sen-

datu, botika konposatu eta garestiak erabili baino. Horregatik, botikak, ebakuntzarekin gertatzen zen bezala, kasurik larrienetarako soilik erabiltzeko joera oso zabaldua zegoen. Zeintzuk ziren orduko farmazia-produktuak edo botikak? Agiriek ematen diguten zerrenda, egia esan, luze samarra da: “urak”, hau da, landareetatik lorturiko likido destilatuak; xarabeak, ur, ardo edo ozpinarekin nahasten zirenak; edabe libragarriak; “hautsak”, zeintzuen konposaketa ez baitugu ezagutzen, pilulak, supositorioak, ukenduak, pomadak eta txaplastak. Zenbait edabek badaukate zer ikusirik sinesmen erlijiosoekin. Adibiderik zelebreena *ardo santua* delakoa izango litzateke. Frantzian, Dofinerrian zehazkiago, bertako abade batean gordetzen ziren San Antonioren hezurak. *Ardo santua* egiteko, monjeek landatutako mahatsondo bateko ardoaz bustitzen ziren hezurrok. Oso eraginkorra omen zen San Antonioren sua sendatzeko.

Epidemien prebentziorako, egur usaintsuak erretzea eta arropa lurrinduak janzteak gomendatzen zuten hainbat sendagilek, airearen ustelkeriari aurka egiteko modurik onena zelakoan. Helburu berarekin, kaleen garbiketa eta gorpuen ehorzketa azkarra komenigarritzat jotzen zituzten. Baina, azken finean, epidemiek eta izurriek gogor jotzen zutenean, neurrikeraginkorrena ihesa zen. Ihesaren baldintzak horrela adierazten ziren latinez: *cito* (azkar), *longe* (urrutira) eta *tarde* (berandu itzuli behar). Berant Erdi Aroan arrakasta handiz nagusitzen da aholkua Europan. Orduan XVII. mendean gogoratzen zuten zenbait sendagile espainarrek: «*huir de la pestilencia con tres eles es prudencia: luego, lexos y luengo tiempo*». Irakurleak berak erraz asma dezakeenez, aholku hori, askok onetsi eta jarraitu zutena,

beste terapeutika ororen porrotaren aitorpena zen.

2.4. Ospitaleak

Goiz Erdi Aroan, ospitaleak monastegietan aurkitzen ziren. Abadegi bakoitzean hiru parte bereizten ziren: *infirmarium* delakoa, monje gaisoentzat erreserbatuak zegoena; *hospitale pauperum*, pelegirino, erromes eta limosna eska ez zezaketen pobreenentzat, eta bisitari berezi edo gizarte maila handikoentzako gunea, bai osasuntsu bai erientzat. Berant Erdi Aroan, ordea, agintariek fundaturiko ospitaleak ugarituko dira hirietan. Ikus ditzagun beren antolamendu eta funtzionamendua.

Hiri-ospitaleetan aritzen zen pertsonalaren artean ondoko taldeak agertzen dira: monja ospitalarioak, sendagileak, zirujauak eta emaginak. Monja ospitalarioak hamazazpi edo hemezortzi urterekin inguru hasten ziren beren zerbitzuetan. Normalean, ez zuten prestaketa teorikorik, baizik eta beren ezagutza guztiak enpirikoak eta praktikoak ziren. Beren ardurapean gaisoen zainketa izpirituala zegoen, baita erien eguneroko asistentzia ere: pazienteen elikadura eta garbiketa, batez ere. Zenbait lanetarako zerbitzari laikoek laguntzen zieten: sukaldeko lanerako edo arropa eta gelen garbiketarako, hain zuten.

Ospitaleetako sendagileak era ezberdinetan sartzen ziren. Batzuk agintari publikoek aukeratzen zituzten oposizio eta lehiaketaren bitartez. Beste batzuk mediku kalongea ziren, eliz erakundeek izendatutakoak. Usu ospitaleak berak deitu eta kontratatzen zituen zerbitzu konkretuetarako soilik, eta eskatutako lana egindakoan, zerbitzuari zegokion ordainketa edo sol-

data ematen zitzairen. Adibidez, azken sistema horri, Parisko Hôtel-Dieu-n jarraitu zioten. 1221-1511 urteetan kontratatu ziren hogeita sei sendagileren izenak agertzen dira dokumentuetan. Denak dira profesionari trebeak, ospe handikoak eta prestaketa ezin hobea izan dutenak. Gehienek kargu eta arduragarrantzitsuak zituzten unibertsitateetan.

Bizargile eta zirujauai dagokienean, beren lana, aurreko atalean deskribatu dugun berbera izango litzateke. Emaginak (frantsesez, *sages-femmes*, *ventrières*, *matrones iurées*, *accoucheuses*; gaztelaraz, *parteras*, *comadronas*, *mujeres sabidoras*; katalanez, *metgesas*) erditzeetan laguntzeaz gain (obstetrizia-lanetan gela bereziak zeuden ospitale askotan), zenbait haur-gaisotasun eta emakumezkoen eritasunen tratamenduaz arduratzen ziren. Beste funtzio osagarri batzuk zituzten. Bortxaketa kasuetan, justiziari laguntza eman behar zioten peritu gisa, baita "ohitura onen" aurkako delituak ikertzeko ere. Agintariak emagin edo "emakume jakitun" horien lana kontrolatzen saiatu ziren. Helburu horretarako bide bat baimen ofizialak ematea zen. Adibide gisa, Castelloneko emakume baten kasua aipatzea merezi du. 1391an erret lizentzia jaso zuen: «Baimena ematen dizut legez eta inolako zigorrik jaso gabe, medikuntzan ihardun ahal dezazun, gizonak zein emakumeak sendatuz, botikak eman ez eta epaiketetan peritu gisa parte hartuz; eta medikuntzan aditu eta perituek egin ohi dituzten gauza guztiak zuk ere egin ahal ditzazun».

Nolakoa zen ospitaleetako tratamendu medikoa? Aldez aurretik, esan beharra dago tratamenduak eredu edo eskema ideologiko bati jarraitzen ziola. Ereduaren arabera, gorputzaren zain-

keta ez ezik, sendaketaren izpirituzko aspektuak ere hartzen ziren kontutan. Izan ere, ez zegoen osasuna mantendu edo berreskuratzetik oreka izpiritualik gabe. Ondorioz, ospitalean sartu baino lehen bekatuen aitortpena eta jaunartzea derrigorrezkoak ziren eta gaisoei eskatzen zitzaizkien; horrela, Jaungoikoarekin bakeak eginda, ekintza terapeutikoa eraginkorragoa izango litzateke.

Gorputzaren zainketan, botikez eta ebakuntzez gain, higiena eta elikadura osasuntsua sartzen ziren. Ospitale-ra heltzean, gaisoei burua eta oinak garbitzen zizkieten mojek, atzazalak eta ilea mozten; pazienteen arropak ere ikuzten ziren. Gainera, eriak eskuak garbitu behar zituen jan aurretik, behintzat. Gela, altzari eta oheen garbiketa ere izugarri garrantzitsuak ziren.

Jakietarako egutegi bereziak zeuden. Frantziari dagokionean behintzat, jakin daiteke nolakoak ziren. Astearte, ostegun eta igandez pazienteek haragi freskua jaten zuten: zerrikia, idikia, txahalkia, arkumekia eta hegaztiak. Ostiral eta larunbatez arrautzak, gazta, tarta, flana eta arrain fresku edo gazitua zerbitzatzen ziren. Beste egunetan menua aldatzen zen, ospitale bakoitzeko ohituren arabera. Egunero eta janaldi guztietan (gosari, bazkari eta afarian) ogia agertzen zen dietan eta oso sarritan barazki berdeak: azenarioak, tipulak, berroak eta baratxuriak, fruituak ahazteke: sagarra, marrubiak eta pikuk. Ez ziren inoiz falta gatza, azukrea eta zenbait elikagai koipetsu: gurina (Frantziako datuak dira, jakina) eta intxaurrezko edo olibazko olioak. Garizuman, baraualdia zenez, arenkeek arrautzak eta haragia ordeztzen zituzten, kopuru handietan jaten zirelarik. Azkenez, edaria urteko ardoa edo garagardoa zen. Ikus daite-

keenez, haragi- eta animalia-produktu ugari ziren. Horrelako elikadura hobea zen eri askorentzat, ospitalean sartu aurretik izaten zutena baino. Egia esan, maiz aipatu menua, higiena eta erosotasun fisikoa ezinago eraginkor- rrrak ziren eta ia botika edo ebakuntza- ra jotzeke, sendaketa ugari lortzen bi- de zuten (eritasunak larriak ez zire- nean, jakina).

Tratamenduaren aurrean, ospitalee- tan bazegoen gizarte-ezberdintasunik. Paziente aberats eta boteretsuek tratamendu luze eta garestiak jasotzen zituzten, erabilitako botiken salneurri altuaz kezkatzeke. Pobreak, aldiz, lan egin beharra zela eta, ez zitezkeen ospitaleetan luzaro gera. Beraz, trata- mendu laburrak eskatzen zituzten. Pobreen kasuetan, botika merkeak erabiltzea gomendatzen zen, gainera.

Ba al dago Erdi Aroko ospitaleen eraginkortasuna neurtzeko modurik? Ba al dakigu zenbat hil eta zenbat sen- datzen ziren? Oso arazo larriak dauz- ka historialariak galderoi erantzuteko, ez baitago ospitaleetan zenbat gaiso sartzen ziren eta horietatik zenbat ateratzen ziren urtez urte adierazten digun zerrenda fidagarriarik. Gehienez, ospitale batzuetan noizean behin ehorzketa-kopuruak aipatzen ziren. Kopuru horiek nabarmenki aldatzen ziren eta zenbait momentutan bapate- ko heriotza-kopuru handiak agertzen ziren. Dirudienez, gehienetan, ospita- leko hilkortasunaren gorakada bi aldi kritikotan izaten zen urtean zehar: neguan eta udako asterik beroenetan. Argi dago heriotzaren bilakaeran klimak zuen eragina.

2.5. Herri-medikuntza

Baina praktika medikoa ez zegoen beti mediku eta zirujau ofizialen kon-

trolpean. Izan ere, botere ofizialak baimendutako profesionariak eskasak ziren eta horietako askok goi mailako gizarte-taldeentzat iharduten zuten eta hiriguneetan agertzen. Bestalde, sendaketarako herri-praktikek tradizio handia eta luzea zuten, landa-biztan- legoaren artean batik bat, praktika horietan ezagutza enpirikoa eta sines- keria nahasten zirelarik.

Herri-medikuntzaren agerpenetako bat etxeko medikuntza zen: eriak be- rak eta bere senideek iharduten zuten beren kabuz sendaketarako bidea aurkitzen. Normalean, ohiko erabilerak ezarritako baliabideetara jotzen zuten. Zenbait produktu naturalek (belarrek, landareek, batez ere) eta zenbait elikagaik, dieta berezi baten barruan, balio terapeutiko handia zutelako ideia oso zabaldua zegoen eta sendaketa- rako usatzen ziren famili-giroan. Arlo horretan, medikuntza ofiziala eta herri- medikuntzaren arteko bereizketa ez zen beti oso argia. Izan ere, Erdi Aroa- ren amaieran, literatura medikoaren liburu batzuek, ospe handiko senda- gileek idatzitakoek, etxeko sendaketa bultzatu nahi zuten. Adibidez, Gazte- lan, Alonso de Chirinok, Juan II.aren sendagile pertsonalak, *Menor daño de la medicina* obra idatzi zuen, senda- gilearen laguntzarik gabeko tratamen- duak proposatzeko asmotan.

Herriak usu petrikiloengana jotzen zuen. Osagile horiek ez zuten ez inolako prestaketa teorikorik ez uniber- tsitate-titulaziorik, baina hainbat sen- daketa-lanetan trebeak ziren. Hortz eta haginak ateratzen zituzten, hausturak eta dislokazioak zaintzen eta zenbait ebaketa kirurgiko egiten ausartzen: begi-lausoak, herniotomiak edo giltzu- rrunetako harriak. Mediku ofizialak ba- bestu nahian, Mendebaldeko Europan legezko araudiek osagileen enpirikoen

praktika eragotzi eta mugatzen bazuten ere, neurri horiek ez zuten eragin nabaririk izan. Horra hor frogarik garbiena: errege eta printzeek ere deitzen zituzten korteetara. Fernando Antekerakoak Mallorkako osagile enpiriko bat etorerrarazi zuen giltzurrunlitiasi bat senda ziezaion. Puntu honetan, lehenago ikusi bezala, ofizialtasunaren mugak nahasiak ziren Erdi Aroan. Non kokatu emaginak, emakume “jakitunak” direlakoak? Beren prestaketa guztiz enpirikoa zen eta ez zuten titulaziorik. Hala ere, ospitaleetara deitzen zituzten beren zerbitzu eta aholku eske eta askok erret baimena jaso zuten.

3. Eritasunaren izua: ondorio eta erreakzioak

Eritasunek edo bestela esanda, eritasunaren agerpenik gogorrenek izua sortu zuten Europako biztanle-goan. Azal ditzagun atal honetan izu horren ondorio sozial eta kultural batzuk, interesgarriak direlakoan.

3.1. Legendunen bazterketa.

Lehenago (ik. lan honen 1.1 atala) azaldu dugu legenaren agerpena eta bilakaera Erdi Aroko Europan. Legenak, beste gaitzek ez bezala, beldur berezia sortu zuen. Denbora igaro ahala, beldur horrek legendunen bazterketa-prozesua ekarri zuen. Frantzia legendunei buruzko lehen neurriak 583ko sinodoan hartu ziren. Arazoa Karlomagnoren kapitulareetan aipatu zen 789. urtean. Halere, bazterketa sistematikoa ez zen hasi XII. mendera arte, Letrango III. kontziliotik (1179tik) aurrera, batez ere. Kontzilioak neurri profilaktikoak ezarri zituen, geroago erret ordenantzetan onartu zirenak: legendunen identifikaziorako prozedura,

gizate-isolamendua, legendundegien fundazioa, eskubide zibilen ukapena, eta abar luze bat. Ondorioz, legendunak beren etxeetatik egotzi zituzten eta pertsona osasuntsuekin bizitzea debekatu zitzaion.

Lehen pausua legenduna identifikatzea eta salatzea zen. Mendebaldeko Europan XIII. eta XIV. mendeetan usadio, foru eta legeek ikerketa-prozedura arautzen zuten. Herri-murmurioek (*vox populi*) edo sendagileek lagun susmagarri bat salatutakoan, batzorde berezi batek aztertzen zuen kasua eta agintariek izendaturiko juezak behin betiko epaia ematen. Akusatua legenduntzat hartzen bazuten, bazterketa-prozesua hasten zen. Ipar eta Ekialdeko Frantzia, Ingalaterran eta Renanian erritualitate berezia ezarri zen legendunen bazterketa aldarrikatzeko. Zeremoniaren xehetasunak ezagutzen ditugu. Gaisoa elizara eramaten zuten prozesioan *Libera me* himnoa abesten zen bitartean (hiletetan ere kantatzen zena). Segidan eriak entzuten zuen meza, batzuetan zerraldo batean, hilik balitz bezala. Meza bukatu ondoren, elizatik ateratakoan, legenardunaren ehorzketa sinbolikoa egiten zen. Erretoreak, kanposantutik hartutako lur-puska bat eduki behar zuen eskuetan eta gaisoaren buruan ipini, hitz hauek ahozkatuz: «munduarentzat hilik zaudelako seinalea da hau, izan egonarrria eta goraipe ezazu Jaungoikoa gauza guztietan» Legendunari errespetatu beharreko debekazioak irakurtzen zitzaizkion:

betirako debekatzen dizut elizan edo monastegian, ferian, lantokian edo azokan sartzea, (...) zure legendunjantzi gabe etxetik irtetea (...), zure eskuak edo zure gauzaren bat korrontean edo iturrian garbitzea, baita tabernan sartzea ere (...). Ezin duzu haurrik ukitu edo haur bati gauzarik eman.

Beste pertsona batzuekin jatea edo edatea debekatua duzu, mahaikideak ere legendunak izan ezik.

Azkenez legendunari jantzi bereziak ematen zizkieten eta bedeinkatzen.

Legenardunak beren janzkeraz bereizi eta identifikatzen ziren. Beren desitxuraketak estali eta biztanlego "osasuntsua" kutsaduratik babesteko, arropa luzeak, larrukoak eta kapela handi bat janztera beharturik zeuden. Gainera, legendunak bere burua iragarri eta aurkezten zuen karraka baten soinuarekin. Limosna eskatzeko upel txiki bat eramaten zuten. Elementu horiek guztiek bazterturiko legenardunaren irudi publikoa osatzen zuten.

Aldi berean, XI.-XIII. mendeetan legenak jotakoak gune berezitueta isolatzeko joera inposatu zen. Legendundegiak edonon, hiri handietan nahiz herrisketan zabalduz joan ziren. Mendebaldeko Europan, ugariak ziren baina txikiak. Bakoitzean, 10-15 eri bizi ziren batez beste. Salbuespena Koloniako lazaretoa izan zen, 100 legendun biltzen zituena. Hala ere, isolamendua ez zen inoiz erabatekoa izan. Maiz legenardunak lazaretoetatik ateratzen ziren eta hirietan sartzen limosna eskatzeko.

Legendundegien egitura alda zitekeen leku batetik bestera. Zenbait tokitan, eriek berek aukeratzen zuten zuzendari bat arduratzen zen lazaretoaren gidaritzaz, Toulousen gertatzen zen eran. Sarriago kongregazio bateko fraide edo mojek hartzen zuten ardura hori. Horregatik, usu legendundegietako barneko disziplinak komentu-ereduari jarraitzen zion. Lazareto bakoitzean, erdiko patioaren inguruan errefektorioa eta logelak edo etxetxoak eraikitzen ziren, kartusiarren komentua izango balitz bezala. Printzipioz, horrelako

guneetan gizonak eta emakumeak aldendurik bizi izaten ziren eta denek kastitatea errespetatu behar zuten. Elikadura ezagutzen da zenbait kasutan. 1362an Saint-Quentin hiriko lazaretoan horrelakoxea zen: egunero gaiso bakoitzarentzat astelehenetik larunbateraino ogi zuria eta beltza, ardoa, haragia edo arraina, igandez arrautzak edo gazta. Jakiekin batera egurra ematen zitzaien gaisoei elikagaiak presta zitzairen.

Legendundegietan ere, gizarte ezberdintasunak nabariak ziren. Hiri handietan, lazaretorik onenak, aberatsenak eta hobekien antolatutako tokiko elite batentzat erreserbatzen ziren. Elite horretako kideak ez zirenei izugarritzko tarifak eskatzen zitzaizkien sartu ahal izateko (Bruselasen 1265etik aurrera gertatu ohi zenez, adibidez). Horrelako legendundegietan sartzea benetako pribilegioa zen; bertan onartutakoek legenaz hil zitezkeela bazekiten ere, ziur zeuden ez zirela gosez hilko. Frantzian, XIV. mendearen lehen erdialdean, goi mailako lazareto horietan, eri bakoitzak prebenda bat (bai eta prebendari zegokion errenta ere, jakina) jasotzen zuen eta maiz zerbitzari pertsonalak zeuzkan, hauei soldata ordainduz. Legendun guztiak ez ziren horrela bizi, jakina. Lazareto pobreetan aurkitzen zirenek edo inolako babesik gabe herriz herri limosna eskatzen ibiltzen zirenek oso bizimodu gogorra eta latza jasaten zuten eta asko miseriaren irudia bera ziren.

Agi denez, Erdi Aroko legendunaren bizitza kontraesanekoa da. Alde batetik, isolamendua eta bazterketa; beste aldetik (gutxiengo pribilegiatu batentzat, bederen) bizimodu erosoak, pertsona osasuntsu askok inbidiatzen zutena. Beti bezala, argia eta iluntasuna elkarren ondoan agertzen dira.

3.2. Azorritzaileak

Izuaren adierazpenak oso forma harrigarriak erakusten zituen Erdi Aroan. Horietako bat azorritzaile edo flagelatzaileen mugimendua izan zen. Izurrite Beltzaren garaian, Europan zehar ibili ziren pelegrinazioan hiriz hiri, herriz herri: burua txanoak estalirik, lurrera begira, otoitz amankomunak eginez, kantu sakratuak abestuz, predikazioak entzunez eta, hau da ezaugarritsuena, egunean birritan bere burua, puntetan burnizko bolak zituzten azorriekin astinduz eta jipoituz, zigor horretaz bekatuen barkamena eta bataioaren garbitasuna berreskuratuko zituztelakoan. Purifikazio mingarriaren bitartez, bekatuaren eragina kenduta, epidemiek ez zituztela berriro joko espero zuten. Penitentziak hogeita hamahiru egun t'erdia iraun behar zuen, Kristok lurrean emandako hogeita hamahiru urte t'erdia gogoratuz.

Mugimendua ez zen guztiz berria, bazen aurrikirik. Goiz Erdi Aroan astinketara jotzen zuten zenbait elizgizon eta ermitarik gizabanakako penitentzia gisa. 1150ean Ostiako apezpikuak onetsi zuen prozedimendua. Geroago, Perusan, 1260an, jendaurrean bere burua jotzen zuen lehen azorritzaile-taldea agertu zen, gizabanakako penitentzia-prozedura hori kolektibo bihurtuz. Goseteak, eritasunak eta epidemiak Jaungoikoaren haserrearen seinale eta egindako bekatuengatik zigorra baziren, penitentziak lor zezakeen jainkozko barkamena. Katastrofe horiek kolektiboak izanez, penitentziak ere kolektiboak izan behar. Azorritzaile taldeak berriro eratuko ziren 1261an Vienan, Estrasburgon eta Polonian, 1296an Italian eta Estrasburgon.

Hala ere, Izurri Beltza zela eta, izan zuen mugimenduak gehienezko heda-

kuntza. Izurritea 1347an Siziliara heldutakoan sortu ziren lehen taldeak. Hurrengo urtean, 1348an, mugimendua Venezian aurkitzen dugu ondo egituratua eta antolatua. Urte horretan zehar, Karintian, Estirian, Vienan, Hungrian eta Polonian hedatu zen, "Gurutzearen Anaiak" izenarekin. Ki-deek jantzi ilun eta txanoduna eramaten zuten, gurutze handi eta gorri batekin bular eta bizkarrean. 1349an azorritzaileak Alemanian, Bohemian, Flandesen eta Frantzia sartu ziren. Urte horretako udaberritik udazkeneraino mugimenduak gehieneko hedakuntza eta arrakasta izan zuen.

Gertaerok ikusita, galdera bat datorkigu burura. Azorritzaileen mugimendua mistizismo-adierazpen hutsa al da? Alde batetik, horrela dirudi. Flagelatzaileek santuen eta Birjinaren laguntza eta sorospena eskatzen zituzten. Beste aldetik, kleroari kritika zorrotzak egiten zizkieten eta sarritan antiklerikalismo amorratua erakusten. Azorritzaileek Elizari bere eginbeharra ez betetzea leporatzeaz gain, hurrengo mendeetan arrakasta handia izango zituzten doktrinak aldarrikatzen zituzten. Adibidez, edonork apezteriarren bitartekotasunik gabe lor zezakeela grazia, aitorpenaren eta indulgentziaren garrantzia mespresatuz. Azorritzaileen aburuz, hierarkia ez zen beharrezkoa. Mugimenduak agerian utzi zuen herri xeheak kleroaren aurka sentitzen zuen etsaitasuna. Horregatik, eliza ofiziala ahalegindu zen mugimendua oztopatzen eta desegiten.

3.3. Izurriteak eta juduen jazarpenak

Izurrite beltza hedatzearekin batera, judu eta legendunen aurkako jazarpen eta sarraskiak ugaltu ziren. Fenomeno historiko horrek bazituen aurrikirik. 1320-1321 urteetan Frantziako hainbat

lekutan (Périguexen, Bergeracen, Chinnonen, Toursen, etab.) legendun eta juduei leporatu zitzaizen eritasunak zabaltzeko egitasmo bat, iturriak eta putzuak pozoinuz burutu behar zena. Kasu batzuetan, matxinaturiko herriak sarraskitu zituen legenardun eta judu susmagarriak; besteetan Felipe V.a erregeak, herria baretu nahian, torturaren bitartez, beren "errua" aitortua zuten zenbait legendun eta judu erretzeko agindu zuen.

Izurri Beltzaren garaian gertaerak errepikatu ziren baina larritasun eta hedakuntza askoz handiagoz. Sarraskiak 1348ko apirilean hasi ziren, Toulouse, bertako berrogei judu hil zituztenean. Maiatzetik aurrera jazarpenak eta ekintza bortitzak Proventzan zabaldu ziren, nahiz eta tokiko agintariak juduak babesten saiatu, baita Languedoc (Narbona eta Carcasonan biztanle judu guztiak hil zituzten) eta Katalunian ere. Udan Frantziako Felipe VI.ak, subditoen murmurioak eta protestak isilarazteagatik, juduak epaitzeko agindu zuen, Felipe V.aren 1321eko jokaera errepikatuz. Juduen aurkako bortizkeria 1348ko azaroan heldu zen Alemaniara, non hurrengo urtean espetxeraketak, erreketak eta sarraskiak areagotu egin baitziren: Hego Alemanian, Renanian, Alsatzian eta Silesian, baita Bremen, Hamburgo, Erfurt eta Dresde hirietan ere. Eguntan, Estrasburgo izan zen sarraskirik handiena, bederatziehun judu erre baitzituzten, ia hiriko judutarren erdia. 1349ko udazkenean, bortizkeriak zabaltzen jarraitu zuen, Austriara eta Flandesera heltzeko.

Nola ulertu sarraskien zergatiak? Europa osoan juduek kontrolatzen zuten diruaren merkataritza, kreditu eta mailegu txikia edo ertaina batez ere (finantza handia bankari lonbardiar, florentziar edo proventzarren

eskuetan baitzegoen). Juduak oso erabilgarri suertatzen ziren errege eta printzeentzat. Eguneroko gastuetarako diru-kopuru txikiak mailegatzen zituen herri xehearentzat, ordea, gorroto-garriak ziren. Aldi berean, farmazia eta neurri handian medikuntza, sendagile juduen kontrolpean zeuden. Zirkuntantzia hori zela eta, herriak uste zuen juduek arriskurik gabe maneaia zitzaketela pozoinak epidemiak sortzeko asmotan. Are eta okerrago, askok sinesten zuten epidemiek ez zietela kalte handirik egiten juduei. Uste horrek iraun zuen, nahiz eta Klemente VI.a aita santuak 1348ko urrian aitortu izurriak ez zituela kristauak eta juduak bereizten. Aipatu arrazoez gain, ohiko erlijiozko eta arrazazko bazterketa ere kontutan hartzekoa da, juduen aurkako herri-erasokortasuna ulertzeko.

3.4. Herri-debozioak eta sineskeria

Epidemiaren aurkako borroka ez da mugatzen mundu honetara. Beste errealitate batzuek hartzen dute parte. Izpiritu gaiztoek eta astroen eraginak sor ditzakete gaitzak eta izurriak. Jaungoikoak bere haserrea adieraz dezake gizakiei epidemiaren bat bidaliz. Nola borrokatu, nola jokatu errealitate ikustezin horien aurrean?

Jainkozko borondateak bi eratan joka dezake: ondasunak banatzen ditu eta ondasunen artean, osasuna; aldi berean, gizakien bekatuek haserreturik, gaitzak, eritasunak, izurriak sor ditzake. Beraz, izurriteak Jaungoikoaren zigortzat hartuko dira. Erremedioa Jaungoikoaren laguntza eta errukia erregutzea da. Alonso de Chirino sendagileak bere *Espejo de medicina* tratatuan zioenez,

bekatuen penitentziagatik etortzen omen dira eritasunak (...). Jainkoak bidalitako gaitzak aitortleei dagokie

sendatzea (...). Ez dut esaten horrela, jainkozko laguntza eskatuz, kristauak heriotza eta gaisotasunaz libre egongo direnik, baina sendagileen asistentziaz baino seguruago bai.

Jainkoaren haserrea baretzeko, ba-zeuden Elizak eta hierarkiak gomendatutako baliabideak: otoitzak, mezak, prozesioak, aitorpena, santu jakin batzuen debozioa eta kofradiak. Izurri Beltza eta jarraitu zioten erasoaldi epidemikoak zirela eta, ugaldtu zen beren praktika.

Otoitz eta meza publikoak, epidemia sahietsi edo geldiarazteko tokiko eta erret agintariak antolatu zituztenak, oso ugariak izan ziren Berant Erdi Aroan. 1348ko izurritetik aurrera, liturgia moldatu zen zirkunstantzia berrietara. Klemente VII.a aita santuak meza berezi bat fundatu zuen izurrialdirako. Adibideak kontaezinak dira: 1430ean Périgeuxen, udalak izurritea geldiarazteko hamahiru meza ospatzea erabaki zuen. Bartzelonan, 1452ko apirilaren 21ean, udal agintariak inguruetakoa monastegietan meza eta otoitz bereziak egin zitatzela eskatu zuten, hiria izurritik babestu nahian. Hurrengo mendeetan behin eta berriro errepikatu ziren horrelako neurriak Europa osoan.

Mezek ez ezik, prozesioek ere garrantzi nabaria izan zuten Erdi Aroko Europan izurriaren aurkako borrokan. Tradizioa VI. mendean hasi zen, izurri-teen lehen zikloak Europa jo zuenean, eta luzaro iraun zuen. Berant Erdi Aroan, Izurrite Beltzetik aurrera, XIV. eta XV. mendeetan, epidemiek erasotzen zuten bakoitzean, hirietako apaiz-terriak antolatzen zituen horrelako ekitaldi erlijiosoak. Askotan horixe zen hirietan hartutako ia neurri bakarra. Bartzelonan, 1371ko ekainaren 3an, hotsandiko zeremonia eta prozesioak izan ziren Jainkoari izurritearen aka-

bera eskatzeko. Bourg-en-Bressen gertatutakoa argigarria da: 1435ean prozesioak izan ziren udalak epidemia-ri aurka egiteko erabaki zuen ekintza bakarra. Birjina, San Antonio eta San Sebastianen ohorean egin zituzten eta ekintzok 1472, 1474 eta 1479an zirkunstantzia beretan errepikatu. 1504ean *prozesio txuriak* direlakoak agertu ziren: inguruetakoa nekazariak zuriz jantzita etorri ziren Birjinari erregutzera, gurutzeak eskuetan zermatzatelarik; egun berean beste hamalau prozesio ere egin zituzten.

Pelegrinazioa Jainkoaren errukia erregutzeko beste modu bat zen. IV. mendetik Kristandade osoan inportantzia nabaria hartu zuten. Frantzia, Soissons hiria ospe handiko pelegrinazio gune bihurtu zen 826an, San Sebastianen erlikiak bertara ekarri zituztenean, epidemien aurka babesteko ezin eraginkorrakoak omen zirenak. Hala ere pelegrinaziorik ezagunenak Santiagorakoak ziren. *Liber Sancti Iacobi* delakoan, Santiago Apostoluaren bitartekotasunaz senda zitezkeen gaitzak aipatzen ziren: legena, prozesu ikterikoak, maniak, erreuma, paralisia, giltzurrunetako gaitzak eta abar luze bat. Liburuak zioenez, «Apostoluak jendea mota guztietako gaitzez sendatzen zuen, Kristoren gloria eta laudoriorako». Obra berberaren parte den Aymeric Picauden *Pelegrinoentzako Gidak* Santiagoren hilobia bisitatu lor zitezkeen mirakulu medikoak azaltzen ditu: «gaisoei osasuna ematen zaie; ikusmena itsuei, mintzamina mutuei itzultzen zaie eta deabrudunei askapena ematen».

Kristautasunaren hasieratik bertatik, santuak eta beren erlikiak inbokaziorako baliabide boteretsutzat hartu ziren, gaisotasunez eta izurriteez babesa eskuratzeko. Santu babesleek

oso zerrenda luzea osatzen zutenez, kasu ezaugarritsu batzuk besterik ez ditugu azalduko. Andre Mariak biltzen ditu inbokazio gehien izurriaren aurkako babesle gisa VI. mendetik batik bat (legendaren arabera, 590ean izurrite bat geldiarazi zuen Erroman). Izurri Beltza zela eta, Birjinaren debozioa areagotu egin zen, leiendak hedatu bitartean. XIV. mendean Tournaiko Kronikan esaten denez, 1348ko abuztuaren 16an Birjinaren irudiak negar egin omen zuen gizakien sufrimenduek eraginda. Birjinarekin batera, izurriaren aurkako beste babesle zerutiar handia *San Sebastian* izan zen XIV. mendetik, batez ere. Santuaren ikonografia izurriari lotua agertzen zaigu. Tradizio kristauak dioenez, San Sebastian martiritzatua hil zen geziek jota, eta geziak Jainkoaren haserre eta izurriaren ikur kristauak dira. Izurri Beltza hasitakoan bere debozioak izugarritzko arrakasta izan zuen. Epidemia garaian, San Rokeri ere eskatzen zitzaion laguntza. Azken debozio horren sorrera ez da ondo ezagutzen. Dena dela, argi dago XV. mendearen bigarren erdialdean San Rokeren kultoa onartua izan zela Europan. 1485ean Veneziako agintariek eskuratu zituzten santuaren erlikiak, hirian hotsandiko zeremonia batekin sartu zirenak. Erlikien zatitxoak beste hiri askotara bidali ziren, horrela San Rokeren kultoa zabalaraziz. Su sakratuak jotakoek San Antoniori egiten zioten otoitz, bere sendaketa mirakulutsuengatik ospetsua baitzen. Debozioak 1098an izan zuen sorrera, Dofinerrian, gaitz horren epidemia bat zela medio. Geroxeago, ordena berezi bat fundatu zen Frantzian (*les antonins*), "sua" nozitzen zutenak bildu eta zaintzeko asmotan. Ordenaren ospitaleak azkar hedatu ziren. Era berean, Espainian VIII. mendetik oso zabaldua egon zen Kosme eta Damian santuen

debozioa, beren sendaketarako ahalmenagatik.

Gaisotasunaren aurkako borrokan, medikuntza, erlijioa eta sineskeria nahasiak aurkitzen ditugu Erdi Aroan. Adibidez, ur bedeinkatua sendaketak eta sorginketak prestatzeko erabiltzen zen (Aragoako Koroan, 1255eko sinodo batek gaitzetsi eta kondenatu zuen praktika hori). Era berean, zaila zen osagile enpirikoen ekintza medikoa eta sineskeria eta sorgintzan oinarrituriko iharduera bereiztea. Askotan belar sendagarriak jaso eta prestatzen zituzten emakumeak sorgintzat jotzen zituzten. Gogora dezagun zer zioen Cuencako foruak: «muger que erbolaria fuere o fechicera, sea quemada o se salve por fierro caliente». Alfontso X.aren Partidetan ideia berbera azaltzen da: (zenbait emakumek) «encantan espíritus e fazen ymágenes o otros fechizos o dan yervas». Legezko debekazioak gorabehera, sineskeria eta sorginkeria oso hedatuak zuden gizarte talde guztietan. Berant Erdi Aroan, Aragoako Kortean sinesten zuten sorginkerian. Aragoako Joan I.a komentziturik zegoen bere gaitzen kausa sorginketak zirela eta bere burua eraztun magikoak erabiliz sendatu nahi zuen. Uste horiek bultzatuta, 1387an sendatzeko botere bereziak bide zituen Orihuelako sorgin baten-gana jo zuen.

Sineskeriaren adierazpenak ugariak ziren. Eritasunen eta epidemiaren aurka babestu nahi ziren etxeak usu markatzen zituzten zeinu magikoekin. Zeinu magikoen tradizioa aspalditik zetorren. 543an Auvernian, izurritea zela eta, nekazariak letra greko bat, T-a (*tau* irakurri behar da) margotzen zuten etxeetako hormetan, ahalmen magikoak zituelakoan. 747an Konstantinoplako hiritarrek eliz jantzi eta ornamen-

tuetan gurutze txikiak marrazten zituzten sustantzia oliotsu batekin. XIV. mendean, Luxemburgen, gurutze geziduna pintatzen zen geletako atee-tan epidemia sar ez zedin. Ikur horrek luzaro iraun zuen eta XIX. mendean ere kolera-epidemiak zirela eta, erabil-tzen zen European. Helburu berarekin, eraikinetako hormetan inbokazioak zein Birjina eta santu babesleen estatuak jartzten ziren.

Kutunak norberaren erabilerako pentsatuak zeuden. Hasieran, izaera astrologikoa zuten eta irudi kabalisti-koak edo ikur paganoak erakusten: sei puntatako gurutzeak, anagramak edo Adan eta Satan izenak elkartzen zituz-ten formula magikoak. Kutunek mota ugari har zitzaizketen: santuen irudiak, inbokazioak, benedikazioak edo otoi-tzak agertzen zituzten papertxoak edo pergamino zatiak, ezkerreko besoan eramaten diren gurutzeak, armiarma, sugedorri eta eskorpioi hautsak edo arsenikoa zeuzkaten zaku txikiak, izen asko eman zietenak (pentakuluak, periaptoak, filakteriak...). Harribitxiak eta perlak eramatea aholkatzen zen Vienan, 1390ean, izurriaren aurkako profilaxirako. Ohitura hori, medikuntza arabiarretik zetorrena, oso zabaldua zegoen Europa osoan Berant Erdi Aroan eta indar handiz iraungo zuen Aro Berrian. Harribitxiak modan zeu- den: errubiak, esmeraldak, amatistak, turkesak. Diamanteek, ezkerreko eskuan eramanez gero, mota guztie- tako kutsadurak eta pozoinak alden- tzen omen zituzten.

Numeromantziak arrakasta nabaria izan zuen Renanian XV. eta XVII. mendeen artean. Bere oinarria "lau" zenbakiaren ahalmen babeslea zen, izurria sahiesteko balio omen zuena. Papergileek eta inprimatzaileek erabil- tzen zuten beren produktuak markatu

eta identifikatzeko. Hainbat sendi noble eta burgesek beren armariak apaintzen zituzten 4 zenbakiarekin, irudiari gurutzeak edo anagramak gehituz.

Gaur ez bezala, sineskeria eta astrologiak jarraitzaile ugari zituzten sendagile ofizialen artean ere. 1411an Enrique de Villena medikuak, *Libro de aojamiento y fascinologia* liburuan, kutunen ahalmen magikoa aldarrikatu zuen eta sendagile eszeptikoak gaitze- tsi. XII. mendean Pedro Alfonsok as- tronomia eta astrologia sartu zituen sendagileek menderatu beharreko ezagutzen artean; horrela jakin zite- keen «une egokia kauterizatu, moztu, abszesuak ireki, odol usketak egin edo bentosak jartzeko; gainera, astrologiak adierazten du botikak noiz eman edo hartu, sukarraren bilakaeraren eguna eta ordua zehazten laguntzen du, baita medikuari dagozkion beste gauza erabilgarri asko ere». Mediku askoren liburutegietan astrologia-lanak gorde- tzen ziren eta tresnen artean astrola- bioak. 1386an Bendit Caracossa medi- kuari emandako lizentzian, bere eza- gutza astrologikoa hartu zen kontutan eta lizentzia lortzeko gaudituz behar izan zuen azterketan, astrologia zen frogaren gai bat. 1421ean Bernart de Granollachs-ek, aldi berean sendagile eta astrologoak, *Lunari e repertori del temps* izeneko almanake astrologikoa idatzi zuen.

Aipatu joerak kritikari sutsuak izan zituen. Alonso de Chirinok, bere *Espe- jo de medicina* lanean zioenez, astro- logian sinesten zuten medikuek «gezur borobilak saltzen dituzte egia bailiren, arimak eta gorputzak arriskuan jarriz». Testua argigarria da, astrologo eta sendagileen arteko nahasketa eta bereizteko zailtasuna adierazten digun heinean.

Bibliografía

- Beriac, Françoise, (1984): *La peur de la lèpre*, in *Les Maladies ont une histoire*, "L'Histoire-Seuil", ale berezia, 56-61 or.
- , (1988): *Histoire des lépreux au Moyen Age: une société d'exclus*, Imago, Paris. 278 or.
- Berthe, Maurice, (1984): *Famines et épidémies dans les campagnes navarraises à la fin du Moyen Age*, SFI Editeur, Paris. 2 t.
- Biraben, Jean-Noël, (1975-1976): *Les hommes et la peste en France et dans les pays européens et méditerranéens*, École des Hautes Études en Sciences Sociales - C.R.H., Paris-La Haye. 2 t.
- Carreras Panchón, Antonio, (1980): "La Peste Negra: aspectos médicos", *Historia*16, 56 zk., (1980-XII), 48-5 or.
- Duby, Georges, (1962): *L'économie rurale et la vie des campagnes dans l'Occident médiéval (France, Angleterre, Empire, IX^e-XV^e siècles): essai de synthèse et perspectives de recherches*, Aubier, Paris. 2 t.
- García Ballester, Luis: *Historia social de la medicina en la España de los siglos XIII al XV*, Akal Editor, Madrid. 217 or.
- Gottfried, Robert S., (1986): *The Black Death: Natural and Human disaster in Medieval Europe*, Mc Millan, London. 203 or.
- Granjel, Luis S., (1978): *Historia general de la medicina española, I. t: La medicina antigua y medieval*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Hildesheimer, Françoise, (1993): *Fléaux et société: de la Grande Peste au choléra, XIV^e-XIX^e siècle*, Hachette, Paris. 175 or.
- Imbault-Huart, Marie-José, (1984): *Le mal des ardents*, in *Les Maladies ont une histoire*, "L'Histoire-Seuil", ale berezia, 66-67 or.
- Jacquart, Danielle, (1984): *La médecine médiévale à l'épreuve: établissement du diagnostic et mise en oeuvre du traitement au Moyen Age*, in *Les Maladies ont une histoire*, "L'Histoire-Seuil", ale berezia, 38-39 or.
- Laín Entralgo, Pedro, (1972): *Historia universal de la medicina: III. t.: Edad Media*, Salvat, Barcelona. 354 or.
- Lope Piñero, José María, (1990): *Historia de la medicina*, Biblioteca Historia 16, 30. zk., Madrid. 223 or.
- Mc Neill, William H., (1978): *Le temps de la peste: Essai sur les épidémies dans l'histoire*, Hachette, Paris, 301 or.
- Mitre Fernández, Emilio, (1980): "La Peste Negra: la epidemia arrasada Europa", *Historia*16, 56.zk (1980-XII), 54-59 or.
- Moore, R. I., (1989): *La formación de una sociedad represora: poder y disidencia en la Europa Occidental, 950-1250*, Editorial Crítica, Barcelona. 196 or.
- Nohl, Johannes, (1986): *La mort noire: chronique de la peste d'après les sources contemporaines*, Payot, Paris. 318 or.
- Ruffié, Jacques eta Sournia, Jean-Charles, (1984): *Les épidémies dans l'histoire de l'homme: essai d'anthropologie médicale*, Flammarion, Paris.
- Saunier, Annie, (1984): *La vie quotidienne dans les hôpitaux du Moyen Age*, in *Les Maladies ont une histoire*, "L'Histoire-Seuil", ale berezia, 84-89 or.
- Valdeón, Julio, (1980): "La Peste Negra: el impacto de la peste", *Historia*16, 56. zk. (1980-XII), 67-71 or.